

GIPUZKOAREN IZENIK ZAHARRENAK.— *Egan* honen aurreko zenbakian 1048ko Gala de *Ipuçcha* aipatzen genuen gipuzkoa izenaren deiturarik zaharrenentzat, 1984ko 5-6 zenbakian, gure egunotan oraindik iraupenez datorren *Iphutcha* gogorazten genuen Marie-Pierre Iphutcha lapurtarra aipatzeaz, baina urte bereko 3-4 zenbakian *Guipuz* eta *Guipus* XIV-XV. mendeetako deituren berri eman genuenez pertsona batek baino gehiagok galdetu digu haserako *G* horrekin edo hori gabe ia nola ulertzen den. Hara ba, ageririk zaharrenetan *I* edo *Y* baizik ez da aurkitzen, XI eta XII. mendeetan. Hori litzake arrazoia orain deitura baten bakarrik gordetzearena.

Geroztik, Liejako Unibertsitatean irakasle den Louis Deroys jaunaren galdea izan dugu, Enrike Knörr adiskidearen bidez, Gipuzkoaren izenik zaharrenak jakin nahirik. Zalantzarik izan ez dadin, XI eta XII. mende horietako ageriak aipatuko ditugu, urtez urte:

- 1007. urtean *Ypuçcoa*, Nafarroako errege Santxo Handiak (Santxo edo Antso III.a), Iruñeko Apezpikutegia berriztean.
- 1025.ean *Ipuscua*, San Juan de la Peña-ra Olazabal monastegiaren emaitza egitean.
- 1048.ean *Ipuçcha*, Olazabaldarren emaitzaren jarraipenez emakumezko baten izen-deiturak datoz: Gala de Ipuçcha. Herritar (= *jentilicio*) izena deiturara pasatua, noski. Horren jarraipenik zuzenena dugu gaur egun Lapurdin ezagutzen dena.

1049.ean *Ippuzka*, Olazabal monastegia San Juan de la Peña-ko monje baten ardurapean uztean.

1056.ean *Ipuzka*, San Juan de la Peña-ra egin zen donazio hura berritzean.

1066.ean *Ipuzcoa*, Nafarroako agerietan “Senior Orbita Acenariz in Ipuzcoa”.

1080.eta 1086. urteetan *Ipuzcua* Astigarribiako (Mutriku) San Andres eliza San Millan de la Cogollora emateaz.

1091.ean *Ipuzcuam*, Alfonso VI.ak Astigarribiako eliza San Millanera donatze hori birretsiz.

1108.ean *Ipuzcua*, Beñat Astaratz Baionako apezpikuak San Millango abataren eskariz Astigarribiako San Andres konsagratzean.

1125.ean *Ypuçcoa*, Iruñeko Apezpikutegiaren gutunean: “Santius de Ypuçcoa”.

Askoz geroagokoa da Santillanako Markesaren *Lepuzcoa*. Ziur esateko, Iñigo López de Mendoza, Primer Marqués de Santillana, 1398-1458. urteetan bizi zen eta *Serranilla VIII*.aren lehen bertsoak honela dakar:

De Vytoria me partia
un dia desta semana,
por me pasar a Alegria,
do vi moça lepuzcana.

Alegria hori Arabakoa noski, jarraian agertzen denez, eta neskata “lepuzcana” abeltzaina omen zen. Oroi Urbia-Aizkorriko parsoneria gure mende hontan ere Arabara arte sartzen dela eta horregatik ez dela hor gauza harrigarrik.

Pentsaraztekoa da haserako letra hori *I* bezala irakurtzekoa ez ote den. Baina *Crónica General de España* delakoan, Alfonso el Sabio-ren partean, *Lipuzcoa* dator. Hala ere, Serapio Mujikaren

ustez, hutsen batetik letorke (*Geografía General del País Vasco-Navarro-ren Gipuzkoa* tomoan 500-551. orrialdeetan dakarrenez), eta Serapio bazen nor probintziaren arazoetan.